BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5415

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 12koa, Ingurumeneko sailburuordearena, beroan ijezteko instalaziorako ingurumen-baimen integratua emateko dena, Azkoitiko (Gipuzkoa) udalerrian Rugui, SL enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2013ko ekainaren 28an, Rugui, SL enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari ingurumen-baimen integratua emateko eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Azkoitiko (Gipuzkoa) udalerrian beroan ijezteko instalazio bat jartzeko.

Halaber, 2012ko urriaren 24an, enpresaren jarduera hirigintzarekin bateragarria dela egiaztatzeko eskaria egin zion Rugui SLk Azkoitiko Udalari.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen Administrazioko zuzendariak 2014ko maiatzaren 13an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun baliodunеko epean, Rugui SLk sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2014ko ekainaren 10ean.

Jendaurreko informazioaren izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, 2015eko martxoaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Azkoitiko Udalari, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eta Osasun Sailari.

2015eko maiatzaren 19an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Rugui SLren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egindako Ebazpen Proposamenaren zirriborroa erantsita.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Hondakinen eta Kutsatutako lurren uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituen ekainaren 11ko 5/2013 Legeak aldatuta) 1. eranskinean jasota dauden jarduerak garatzen dira instalazioan; horiez gain, aipatu legearen aplikazio-eremuan sartzea ekarri zuten instalazioaren kokapenean garatzen diren jarduera guztiak hartzen ditu barne baimen honek, baita, eranskin horretan jasota ez egonik, jarduera horrekin erlazio teknikoa dutenak eta sor daitezkeen isurien eta kutsaduraren gainean ondorioak izan ditzaketenak ere.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duenaren arabera, ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean aipatzen direnetako jardueraren bat garatzen duten instalazioak ustiatzeko.

11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplika daitekeen instalazio guztietan arauaren xedea betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten herri-administrazioen artean koordinatuta egongo den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzeko. Era berean, indarrean dagoen araudian jasotako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Rugui, SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimena, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera isurtzeak egiteko baimena, atmosferara isurtzeak egiteko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, hondakinak sortzeari dagozkion baimenak eta lurzoruaren eta lurpeko uren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-baimen integratua emateko prozedurak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak burutu ahal izateko administrazio eskudunek herritarren ekintzen gainean esku hartzeko dituen administrazio-bitartekoak ordezkatuko ditu. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua tokiko agintarientzat loteslea izango da baldin eta jarduerak egitea ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten denean ere. Aipatutako 28. artikuluan adierazten da aurrez xedatuak ez diela kalterik egiten jarduera sailkatuei buruz aplikatu behar diren autonomia-erkidegoko arauei, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, jarduera sailkatuen araubidea araututa dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean. Adierazitako aginduak aplikatuz, Rugui SL enpresaren ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran sartuta daude Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, instalazioak isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko instalazioari ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazteko, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Europako Batzordearen BREF dokumentuaren edukia hartu da kontuan zehazki: «Burdin metalen prozesuen industriako teknika erabilgarri onenen erreferentziako dokumentua».

Azaldu dugun guztia aintzat hartuta, espedientean jaso diren txosten guztiak aztertuta, ebazpen-proposamena egin zen, eta bertan jaso ziren Rugui, SL enpresak sustatutako proiektuari aplikatu beharreko baldintzak.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Aintzat hartu da organo honek eskumena duela ingurumen-baimen integratu hau emateko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Honako hauek ikusi dira: Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ebazpen-proposamena, 2015eko maiatzaren 19koa; Euskadiko Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; ekainaren 11ko 5/2013 Legea, hura aldatzekoa; urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, Industriako isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikazio orokorreko gainerako arauak. Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Rugui, SL enpresari (egoitza soziala: Basarte industrialdea z.g., Azkoitia (Gipuzkoa), eta IFK: B20510541) beroan ijezteko instalaziorako ingurumen-baimen integratua ematea Azkoitiko udalerrian, ebazpen honen bigarren zenbakian ezarritako baldintzekin.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.3.a kategorian dago sartuta jarduera hori:

«Berotan ijeztekoak, orduan 20tik gora tona altzairu gordin ekoiztu ahal dituztenak».

Azkoitiko udalerriko (Gipuzkoa) Instalazioa Basarte industrialdeko z.g.n dago, eta 12.764 m^2 ditu. Horietatik, 9.600 m^2 eraikitako azalerari dagozkio, pabiloi nagusia eta atxikitako nabeak barne hartuta.

Rugui SL enpresaren produktua beroan ijeztutako profil angeluzuzenak dira (hagunak), sektore hauetarako: forjaketa, eraikuntza, metal-arotzeria eta piezen fabrikazioa, batez ere. Instalazioaren ijezte-ahalmena 75.000 tona inguru eraldatutako produktukoa da.

Totxoak deiturikoak hartzen dira oinarri sortzeko. Neurri eta kalitate ezberdinetako altzairuzko piezak dira, arku elektrikozko labeetatik eta indukzio-labeetatik zuzenean datozenak.

Totxoak normalean 12 metro luzeko unitateak izaten dira, eta amaierako hagunaren neurriak, berriz, asko aldatzen dira bezeroaren eskakizunen arabera.

Produkzio-prozesuaren etapa nagusiak hauek dira:

1.– Totxoak berotzea.

Eragiketa honek funtsean altzairua ijezteko tenperatura egokira eraman nahi du, ondoren ijezketa-trenetan hausteko arriskurik gabe deformatu ahal izan dadin, bai materialari bai instalazioei beraiei dagokienez.

Nolanahi ere, totxoa labera eraman aurretik, oxigeno bidez ebakitzeko ekipoen bitartez ebaki behar da. Prozesu hori egiteko, oxigenoa eta gasa hartzeko instalazio bat du.

Horren ostean, totxoa berotzeko faseari ekiten zaio. Eragiketa hori birberotzeko labe batean egiten da. Labe horrek hainbat metxero eta erregulazio egokia ditu altzairua ijezte-tenperaturan berotzeko eta totxoaren homogeneizazio termikoa ahalbidetzeko.

Labeak bero-berreskuratzailea du; horri esker errekuntza-gasen bero sorra baliatzen da metxeroetara doan gasa berotzeko.

Totxoa labetik irteten denean desugertzeko makinatik igarotzen da; presiozko urezko hainbat zurrusta sortzen dituzten piten eraztun bat da makina hori, eta haien bidez materialaren gainazaleko herdoil-azala kentzen da.

Azkenik, totxoa labetik irtenda ijezte-trenetik igarotzen da.

2.– Beroko ijezketa.

Hasierako material jakin baten –kasu honetan totxoaren– sekzioa deformatu eta murriztu egiten da prozesu honetan. Eragiketa hori egiteko altzairua aurretiaz berotu behar da eta, ondoren, kontrako noranzkoan biratzen diren bi zilindroren artean konprimitzen da totxoa, amaierako produktua nahi dugun forma eta sekzioarekin lortzen den arte.

Materiala konformatzea ez ezik, amaierako egitura aldatzea ere bilatzen du prozesuak eta, ondorioz, ijeztutako materialaren ezaugarriak hobetzea.

3.– Ebakitzeko eragiketak.

Ebaki zizaila baten bidez egiten da zer neurri nahi dugun.

4.– Hoztea.

Hozteko mahai batean uzten dira hagunak.

5.– Mekanizatua eta akatsak kontrolatzea.

Prozesu hauek hartzen ditu barnean: azala kentzea, zuzenketa, leunketa eta alakatzeko makina.

6.– Amaierako produktua biltegiratzea.

Hagunak hoztutakoan, amaierako produktua biltegiratzeko gunean gordetzen dira eman aurretik.

Amaitu eta gainbegiratutakoan, azken urratsa barra-paketeak alanbrez edo zumitzez lotzea da, eta horrela bezeroei bidaltzeko prest gelditzen da produktua. Paketeak lotutakoan, nabearen barruan hartarako bereziki prestatutako gunean biltegiratzen dira horiek.

Rugui SL sozietateak beroan ijezteko 7.569,6 kWh energia elektriko eta 33.387.6262,5 Nm³ gas natural kontsumitzen du.

Ijezte-trenak eta desugertzeko makina zuzenean hozteko zirkuituko urak araztu egiten dira zirkuitura berriro gehitzeko. Urteko geldialdian tratamendu-sistemako dekantatze-ontzia hustu egiten da kolektorera isuriz.

Ur sanitarioak Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kolektorera zuzentzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak batez ere hauek garbitzean sortzen dira: gordailuak , ijezteko makinak zein ekipoak, eta artezteko makinan (laborategian), azala kentzeko makinan, zuzengailuan, mantentze-lanetan eta zerbitzu orokorretan.

Rugui, SL enpresaren jardueran, teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, honako BREF txosten europarretan jasota daudenak:

● Hondakinen Kudeatzaileen Industriarako BREF txostena (2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metals Processing Industry»).

Proiektuak, besteak beste, hobekuntza tekniko baliagarritzat jo daitezkeen neurri hauek biltzen ditu:

Lehengai eta gai osagarrien biltegiratzea eta manipulazioa:

● Isuriak eta tanta-jarioak bitarteko egokiak erabiliz biltzea.

Birberotzeko eta tratamendu termikoko labeak.

● Aire gehiegi egotea eta beroa gal dadin saihestea kargan zehar eragiketa-neurriak erabiliz (atea ahalik eta gutxien irekitzea kargatzeko orduan).

● Erregaia kontu handiz aukeratzea eta labeak automatizatzeko eta kontrolatzeko prozesuak aplikatzea.

● Ihes-gasean beroa berreskuratzea berreskuratze- edo birsortze-erregailuen bidez.

● Airearen aurre-berokuntzako tenperatura mugatzea.

Desugerketa.

● Materiala kontrolatzea uraren eta energiaren kontsumoa murrizteko.

Tren akabatzailea.

● Ur-lainoztagailuak eta ondoren hondakin-uraren tratamendua egitea, non solidoak (burdin oxidoak) bereizi eta bildu egiten diren burdin edukia berriro erabil dadin.

Hoztea.

● Ur bidezko hozteko sistema independenteak zirkuitu itxian.

Hondakin-uraren / azal eta oliozko prozesuko uraren tratamendua.

● Zirkuitu itxiak > % 95eko birziklatze-tasekin.

● Isuriak murriztea tratamendu-tekniken konbinazio egokiaren bidez.

Isuriak murriztea tratamendu-tekniken konbinazio egokiaren bidez.

● Aldizkako prebentzio-kontrolak eta itxituren, junturen, ponpen eta hodien prebentzioko mantentze-lanak.

● Lubrifikatzaile-lerroetan ihes-adierazleak ezartzea.

● Hustubideko ur kutsatua biltzea eta tratatzea olio-frakzioaren kontsumitu (agregatu hidraulikoak), bereizi eta erabiltzen duten eremuetan. Bereizitako uraren ondorengo tratamendua araztegian edo akabera-instalazioetan ultrairagazketa edo huts-lurrungailua erabiliz.

Ijezteko tailerrak.

● Disolbatzaile organiko ez-kloratuak erabiltzea.

●.Arrabolen euskarri birakarietatik kendutako koipea biltzea eta egoki kudeatzea.

● Hozteko eta koipe-kentzeko hondakin-uraren efluenteak tratatzea, bai eta beroan ijezteko instalazioko araztegiko emultsioen bereizketak ere.

● Altzairu eta burdinazko txirbilak birziklatzea.

Bigarrena.– Rugui SLk Azkoitian (Gipuzkoa) sustatutako beroan ijezteko jarduera ustiatzeko baldintza eta betekizun hauek ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Rugui, SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Rugui SL enpresaren instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete beharko dira: atmosferara egingo diren isurketek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritakoak betetzea, giza osasuna eta ingurumena zainduta, betiere.

Era berean, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren hala behar denean.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko isurketarik ez egiteko, eta haien efluenteak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Organo horrek foku berri baterako baimena eman ondoren, fokua ezarri eta sei hilabete igaro aurretik, ingurumen-kontroleko erakundeak egindako hasierako IKE txostena igorri beharko da. Horrela egin ezean, baimena ez da eraginkorra izango. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

B.1.1.2.− Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Rugui SLren instalazioak (haren jarduerari urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren eranskinaren 03 03 02 01 kodea dagokio) honako foku hauek ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiari jarraituz katalogaturik:

Fokua	Kodea	Izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	AKDJ katalogazioa	Jarduteko araubidea	UTM koordenatuak	
							X	Y
1	2000022216-01	Totxoa birberotzeko labea	>20	1,15	03 03 02 01	Sistematikoa	557.551	4.781.027

Foku ez-sistematiko horietakoren bat, bataz beste, urtean hamabi aldiz baino gehiagotan funtzionatzera pasako balitz, ordubete baino gehiagoko iraupen indibiduala duela, edo, maiztasuna edozein dela ere, isurtzeen iraupena orokorrean hartuta instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bost baino gehiagokoa bada, isurtze-foku gisa araupetu beharko da.

Halaber, baldin eta urte jakin batean foku sistematiko batentzat ez badira baldintza horiek betetzen, urte horretan ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko, kontrol hori hurrengo urtean egin beharko da, betiere, kontroletik salbuesteko baldintzek beren horretan jarraitu ezean. Ingurumena Zaintzeko Programa egokian justifikatu beharko da inguruabar hori.

B.1.1.3.− Isurketaren muga-balioak.

Planta ustiatzean, atmosferara egiten diren isurietan, ez dira gainditu isurien mugako balio hauek:

Fokuak	Substantziak	Isurketarako muga-balioak
1	Partikulak guztira	150 mg/Nm³
	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm³

Balio horiek honako baldintza hauetarako dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Isuri-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuko 9 artikuluak arautzen duena beteko da.

B.1.1.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren ataleko B.1.1.2 azpi-atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Sekzioek eta lagin-puntuen kokapenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Isurpen barreiatuak minimizatzeko, ihesak antzemateko ekipoak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera eta ibilgura isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko oinarrizko produktuak egitea.

Isurketa-puntua	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen UTM koordenatuak
1. isuri-puntua	Ur sanitarioak	Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorea	X: 557.381 Y: 4.780.933
2. isuri-puntua	Ur sanitarioak eta dekantatze-ontziaren urteko hustuketa	Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorea	X: 557.568 Y:4.780.977
3. isuri-puntua	Estalkietatik datozen euri-urak	Basarte erreka	X: 557.471 Y:4.780.950

B.1.2.2.– Isurketaren muga-balioak.

a) 1. eta 2. isurketak. Ur sanitarioak eta dekantatze-ontziaren urteko hustuketa:

Saneamendu-sarera egiten den isurketaren parametroak honako hauek izango dira, bakoitzerako zehazten diren gehieneko balioekin:

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Gehienezko emaria	Ekoizpen-orduetan batez besteko emariaren hirukoitza baino txikiagoa
Tenperatura	45.ºC
pH-a	5,5-9,5
Konduktibitatea	5.000 µS/cm
Benetako kolorea	350 unit. Pt/Co
Ageriko kolorea	1/50 detekta ezina disoluzioan
Tentsioaktibo anionikoak	10 mg/l
Solido lodiak	Ez daude
Solido jalkigarriak	20 ml/l
Solido esekiak	600 mg/l
Olioak eta koipeak	100 mg/l
OEB_5	500 mg/l
OEK	4 aldiz OEB_5 edo, hori ezean, 1600 mg O2/l
N- guztira (organikoa+amoniakala+NO2+NO3)	75 mg/l (N)
TKN	75 mg/l (N)
N-NO3	75 mg/l (N)
N-NH3	50 mg/l (N)
P-guztira	15 mg/l (P)
SO4	1.000 mg/l
SO3	5 mg/l
S=	1 mg/l
Cl	1.600 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Fe	20 mg/l
Zn	3 mg/l
Cr, guztira	1 mg/l
Cr VI	0,3 mg/l
Cu	1 mg/l
Cd	0,1 mg/l
Ni	2 mg/l
Pb	0,5 mg/l
Hg	0,01mg/l
As	0,1 mg/l
Ba	10 mg/l
Sn	2 mg/l
Mn	2 mg/l
Ag	0,5 mg/l
Se	0,1 mg/l
Al	20 mg/l
Cn guztira destilazioan	0,5 mg/l
Cn askeak	0,1 mg/l
Zianatoak	2 mg/l
Kloro askea	0,5 mg/l

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Fluoruroak	10 mg/l
Toxikotasuna	25 ekitox/m^3
AOX	2 mg/l
Hidrokarburo guztira	10 mg/l

Taula honetako mugak hartzen dira kontuan, egindako entseguari lotutako ziurgabetasuna aintzat hartuz.

B.1.2.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren zuzenketa-neurriek edo arazte-instalazioek jarduera hauek dituzte, funtsean:

Ijezketa-trenak eta desugertzeko makina zuzenean hozteko zirkuituetako urak tratatzeko sistema dago. Ur horiek materialarekin kontaktuan jartzen dira, eta ijeztean askatutako materialaren zati bat arrastatzen dute. Ura kutxetetan biltzen da eta putzu baterantz eramaten da. Putzu horretan iragazi egiten da herdoil-azal handienak kentzeko.

Putzu horretatik ura punpa bidez araztegira eramaten da zirkuituan berriro sartu aurretik tratatu dadin. Arazteak honako prozesu hauek ditu: homogeneizazioa, dekantazio lamelarra, olioa kentzea, grabitate bidezko dekantazioa eta paper-xingola bidezko danbor-iragazkia.

Iragazitako ura, bi bero-trukagailutatik igarota hoztu ondoren, berriro zirkulatzen da ijezketa-trenean. Ura ijezteko arraboletan lainoztatuz hozten da ijezketa-trena.

Konpresore-purgak hozteko uren zirkuituan sartzen dira.

Urteko geldialdian tratamendu-sistemako dekantatze-ontzia hustu egiten da kolektorera isuriz.

B.1.3.− Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu behar da, eta, horretarako, balorizatzeko gune baimendu batera eraman behar dira. Hau izango da hondakinak ezabatu edo deuseztatzeko aukera bakarra: ezinezkoa izatea haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balorizatzeko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-diferentziak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartuta. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (4.d atala) ezarritakoari kalterik eragin gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Azkoitiko Udalean.

Beste autonomia erkidego batzuetara hondakinak lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen 180/2015 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetatik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, segimendua eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25.2 artikuluaren arabera.

B.1.3.1. Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak:

«Ijezketa-biltegiak garbitzea» prozesua

1.– Hondakina: «Olio eta herdoil-azaldun ura».

Identifikazioa: B20510541/ 2000022216/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//R1//L9//C51//H05//A932(1)//B09300.

EHK: 130802.

Urtean sortutako kantitatea: 19.000 kg urtean.

Zuzenean erabilera-puntutik erretiratzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

2. prozesua «Biltegiak garbitzea».

1.– Hondakina: «Dekantazioko lohi oliodunak».

Identifikazioa: B20510541/ 2000022216/2/1.

Hondakinaren kodea: Q8//R1//P09//C51//H5//A932(1)//B09300.

EHK: 130502.

Urtean sortutako kantitatea: 8.000 kg urtean.

Berariazko edukiontzi batean biltzen dira, behar bezala identifikaturik, baimendutako kudeatzaileak biltzen duen arte.

3. prozesua «Ijezteko makina eta ekipoen garbiketa».

1.– Hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/3/1.

Hondakinaren kodea: Q07//R13//L05//C41//H3B-5//B0005.

EHK: 140603.

Urtean sortutako kantitatea: 330 kg urtean.

Behar bezala identifikatutako bidoietan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

2. hondakina: «Xurgatzaileak eta kotoi bustiak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/3/2.

Hondakinaren kodea: Q05//D15//S40/C51//H05//A936(9)//B09703.

EHK: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako bidoietan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

4. prozesua «Azala kentzea eta zuzentzea».

1. hondakina: «Erabilitako ebaketa-likidoa».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/4/1.

Hondakinaren kodea: Q10//R1//L09//C51//H05//A932(1)//B09300.

EHK: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: 275 l urtean

Mekanizazio-eragiketetan ebaketa-likidoa erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsua da.

Behar bezala identifikatutako bidoietan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

5. prozesua: «Mantentze-lanak».

1. hondakina: «Aerosolak».

Identifikazioa: B20510541/ 2000022216/.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43//H5//A936(9)//B09703.

EHK: 160504.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako kutxetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

6. prozesua «Zerbitzu orokorrak».

1. hondakina: «Erabilitako olioa».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/1.

Hondakinaren kodea: Q7//R1//L08//C51//H5/H6//A932(1)//B09300.

EHK: 130111/130205.

Urtean sortutako kantitatea: 2.100 kg urtean.

Behar bezala identifikatutako ontzi egokietan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

2. hondakina: «Metalezko ontzi kutsatuak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/2.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A936(9)//B09703.

EHK: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako big-bag poltsetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

3. hondakina: «Plastikozko ontzi kutsatuak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/3.

Hondakinaren kodea: QR//R13//S36//C51//H5//A936(9)//B09703.

EHK: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako big-bag poltsetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

4. hondakina: «Botoi-pilak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/4.

Hondakinaren kodea: QR//R13//S36//C51//H5//A936(9)//B09703.

EHK: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako kutxetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

5. hondakina: «Fluoreszenteak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/5.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H06/H14//A222//B0019.

EHK: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako kutxetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

6. hondakina: «Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak».

Identifikazioa: B20510541/2000022216/6/6.

Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/C18//H06/H14//A113(2)//B0019.

EHK: 160213.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Behar bezala identifikatutako kutxetan biltzen dira, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten kudeatzaile baimendu batek jasotzen dituen arte.

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaizkio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakin mota zehazten eta hondakin horrek dituen osagai arriskutsuak adierazten dituzte kode horiek (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota); horrez gainera, hondakina zer jarduerak eta zer prozesuk sortzen duten adierazten dute (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2015-2020) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek segurtasun-neurri hauek izan beharko dituzte: Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritakoak, eta, bestalde, itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta, etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta, halaber, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izan beharko du.

e) Hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago biltegiratuta egon.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasota dauden hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik, eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da.

h) Egiaztatu beharko da kudeatzaile baimenduaren instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

i) Rugui, SL sozietateak sortutako olio erabilia industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatu beharko du.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinei dagokienez, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

k) Rugui, SL enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean 2009ko irailaren 16an eman zuen 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baldin baditu Rugui SL enpresak, berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide

tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Rugui, SL enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda. Datuekin batera, dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programa ere bidaliko du.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarrizko printzipioetako bat betetzeko, zein hondakin horiek ahalik eta gutxien sortzea baita,Rugui, SLk hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetza honi, lau urtetik behin, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 17.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatu legearen garapenerako araubideak ez badu Rugui, SL hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

o) Baldin eta Rugui, SL Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, atal honetako f) eta g) letretan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta m) eta n) letretan aipatutakoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

q) Baldin eta hondakin arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Rugui SLk bete egin beharko ditu Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren maneiatze-lanak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duen 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakian ezarritakoaren arabera kodetuta, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorriz, sustatzaileak honako hondakin ez-arriskutsu hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Kalkulatutako ekoizpena (kg/urte)
Herdoil-azala	100210	Ijezketa	3.000
Erregogorrak	161102	Labearen mantentze-lanak	100
Papera eta kartoia	150101	Zerbitzu orokorrak	1.070
Plastikoa	150102	Zerbitzu orokorrak	200
Zura	150103	Zerbitzu orokorrak	100
Txatarra	120101	Zerbitzu orokorrak	100
Pila prismatikoak	160604	Zerbitzu orokorrak	45
Txirbila	120101	Azala kentzea	<2.700
Paperezko xingola-iragazkia	100299	Ijezketako ura iragaztea	2.200

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua balorizatzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasota dauden hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

d) Hondakina zabortegian biltegiratuz gero, hondakin ez-arriskutsua eraman aurretik kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da; otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzekoa) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa.

e) Balorizatzeko edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 25.2 artikuluaren arabera.

f) Baldin eta Rugui, SL Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

g) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituena: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programa bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

h) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, atal honetako c), d) letretan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta g) letran aipatutakoak

Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

i) Baldin eta hondakin ez-arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Rugui, SL enpresak lurzorua babesteko behar diren honako neurri hauek hartu beharko ditu:

● Zolatako olio-orbanak garbitzea eta inprimazio edo beste babesgarri batez estaltzea.

● Ontzi guztietan atxikipen-kubetak ipintzea, ihesak edo isuriak gertatzekotan bildu ahal izateko, eta horrela lurzorua kutsatu dadin saihesteko.

● Aldian behin mantentzeko eta berrikusteko programak egitea ihesak gutxiagotzeko eta olioaren makinetarainoko zirkulazio-zirkuituaren funtzionamendua optimizatzeko.

Bost urtez behin, ebazpen hau jasotzen denetik hasita, eguneratu egin beharko da lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiko txostena, eta instalazio guztiei dagokien kutsadura-arriskuaren ebaluazio bat erantsiko zaio. Dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programarekin batera bidaliko da txosten hori.

Nolanahi ere, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena lortzeko prozedura hasteko eskatu beharko dio sustatzaileak ingurumen-organoari, baldin eta otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17. artikuluan adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada.

Lurrak mugitzea dakarten obrak egitekotan –are ekoizpen-jarduerarik gabeko eremuetan ere–, hondeatu beharreko materialak (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu beharko ditu sustatzaileak, egiaztatu ahal izateko ia lurra kutsa dezaketen jardueren ondorioz kaltetu ote diren, eta zehaztu ahal izateko, karakterizazioaren emaitzak ikusita, zein den material horiek kudeatzeko biderik egokiena.

1.– Soberakinak zabortegian biltegiratuta hustu nahi izanez gero, 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena). Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500m^3 bakoitzeko 10 azpilagin izango ditu gutxienez, baina hori aldatu ahal izango da espero daitekeen kutsaduraren heterogeneotasunaren eta homogeneotasunaren arabera. Afekzioa homogeneoa izango dela aurreikusten den kasuetan, 500m^3-ko bolumena baino bolumen handiagoa duten unitateez osatutako lagin konposatua hartu ahal izango da; eta, aldiz, afekzio heterogeneoaren kasuan, 500m^3-ko bolumena baino bolumen txikiagoa duten unitateez osatutakoa.

2.– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, material horiek honako balioa izan beharko dute: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa, eta lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko du laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera (Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena).

3.– Lurretan ez badira gainditzen VIE-A B parametroak, otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritakoak, edo TPHko 50mg/kg, lur horiek garbiak kontsideratuko dira, eta, beraz, onargarriak baimendutako beteleku batean.

4.– Murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da substratu harritsu sanoa. Lurzoru naturalaren pareko den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

Alabaina, obrak aldez aurretik inolako jarduerarik izan ez duten eremuetan egin behar badira, karakterizazioa egin gabe uzteko aukera izango da, betiere, jarduerarik eza behar bezala justifikatzen bada.

Era berean, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikuluaren 2. zenbakiaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 1/2005 Legearen 17. artikuluaren seigarren zenbakiari jarraikiz, betiere.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Behar diren neurri guztiak ezarriko dira, honako indize akustiko hauek gainditu ez daitezen:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko behar den garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da Ingurumena Zaintzeko Programa:

C.1.– Atmosferako isurtzeak kontrolatzea.

a) Rugui SLk botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	2000022216-01	Totxoa birberotzeko labea	Partikulak guztira	3 urte.
			CO	
			NOx	

b) Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak administrazioaren II. mailako erakunde laguntzaileren batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jartzen duen bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Halaber, a) letran azaldutako isurketa-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek funtzionatzen badu urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin, eta isurketa bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozein maiztasunarekin, baldin eta isurketaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik beherakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, honako analitika hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1. isuri-puntua	Ur sanitarioak	X: 557.356 Y: 4.780.962	Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezarritako parametro bereizgarriak	Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezarritako aldizkakotasuna	Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eginak
2. isuri-puntua	Ur sanitarioak	X: 557.561 Y: 4.781.010	Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezarritako parametro bereizgarriak	Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezarritako aldizkakotasuna	Nork egina: Gipuzkoako Urak
	Dekantatze-ontziaren urteko hustuketako urak	X: 557.533 Y: 4.781.057			

b) Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira laginketak.

c) Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da puntu honetako a) letran ezarritako kontrol-parametro guztiek ebazpen honen bigarren idatzi-zatiko B.1.2.1 azpiatalean ezarritako mugak betetzen dituztenean.

C.3.– Zarata kontrolatzea.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urterik behin: L_d, L_e, L_n ,L_{Aeq},T_i eta $L_{Aeq,60\ segundo}$. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak administrazioaren II. mailako erakunde laguntzaile batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberako egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du ingurumen-organoak.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.4.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Rugui, SL enpresak lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu:

● Zolatako olio-orbanak garbitzea eta inprimazio edo beste babesgarri batez estaltzea.

● Ontzi guztietan atxikipen-kubetak ipintzea, ihesak edo isuriak gertatzekotan bildu ahal izateko, eta horrela lurzorua kutsatu dadin saihesteko.

● Aldian behin mantentzeko eta berrikusteko programak egitea ihesak gutxiagotzeko eta olioaren makinetarainoko zirkulazio-zirkuituaren funtzionamendua optimizatzeko.

Bost urtez behin, ebazpen hau jasotzen denetik hasita, eguneratu egin beharko da lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiko txostena, eta instalazio guztiei dagokien kutsadura-arriskuaren ebaluazio bat erantsiko zaio. Dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programarekin batera bidaliko da txosten hori.

Nolanahi ere, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena lortzeko prozedura hasteko eskatu beharko dio sustatzaileak ingurumen-organoari, baldin eta otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17. artikuluan adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada.

Lurrak mugitzea dakarten obrak egitekotan –are ekoizpen-jarduerarik gabeko eremuetan ere–, hondeatu beharreko materialak (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu beharko ditu sustatzaileak, egiaztatu ahal izateko ia lurra kutsa dezaketen jardueren ondorioz kaltetu ote diren, eta zehaztu ahal izateko, karakterizazioaren emaitzak ikusita, zein den material horiek kudeatzeko biderik egokiena.

1.– Soberakinak zabortegian biltegiratuta hustu nahi izanez gero, 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena). Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500m^3 bakoitzeko 10 azpilagin izango ditu gutxienez, baina hori aldatu ahal izango da espero daitekeen kutsaduraren heterogeneotasunaren eta homogeneotasunaren arabera. Afekzioa homogeneoa izango dela aurreikusten den kasuetan, 500m^3-ko bolumena baino bolumen handiagoa duten unitateez osatutako lagin konposatua hartu ahal izango da; eta, aldiz, afekzio heterogeneoaren kasuan, 500m^3-ko bolumena baino bolumen txikiagoa duten unitateez osatutakoa.

2.– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, material horiek honako balioa izan beharko dute: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa, eta lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko du laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera (Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena).

3.– Lurretan ez badira gainditzen VIE-A B parametroak, otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritakoak, edo TPHko 50mg/kg, lur horiek garbiak kontsideratuko dira, eta, beraz, onargarriak baimendutako beteleku batean.

4.– Murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da substratu harritsu sanoa. Lurzoru naturalaren pareko den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

Alabaina, obrak aldez aurretik inolako jarduerarik izan ez duten eremuetan egin behar badira, karakterizazioa egin gabe uzteko aukera izango da, betiere, jarduerarik eza behar bezala justifikatzen bada.

Era berean, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikuluaren 2. zenbakiaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 1/2005 Legearen 17. artikuluaren seigarren zenbakiari jarraikiz, betiere.

C.5.− Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programarekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Hagun-ekoizpena	t
Lehengaien eta osagarrien kontsumoa	Altzairuzko totxoaren guztizko kontsumoa	t
	Erregogorren kontsumoa	t
	Altzairuzko alanbreen kontsumoa	t
	Altzairuzko zumitzen kontsumoa	t
	Olioaren kontsumoa	l
Uraren kontsumoa	Sareko uraren kontsumoa	m^3
	Putzuko uraren kontsumoa	m^3
Energia-kontsumoa	Elektrizitatearen kontsumoa	KWh
	Gas naturalaren kontsumoa	Nm^3
Isuri atmosferikoak	COren isuria	ppm
	Partikulen isuriak	mg/Nm3
	NOx-ren isuria	mg/Nm3
Hondakinak	Dekantazio-lohien sorrera	t
	Herdoil-azalaren sorrera	t
	Emultsio oliotsuaren sorrera	t
	Hondakin-olioaren sorrera	t

C.6.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumen-zaintzako programa osatzen duten analisi eta txosten ezberdinen emaitzak behar bezala erregistraturik gelditu dira; datuok jakinarazpen baten bitartez Ingurumen Sailburuordetzara igorriko dira, jakinarazpenari erantsitako CD edo DVD batean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak horretarako prestatu duen Ingurumena Zaintzeko Programaren Gidaliburuan ezarritako formatuan, zeina webgune honetan baitago eskuragarri:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-pcc/eu/

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egindako kontrol guztiak, ibilgu eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, Ingurumena Zaintzeko Programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean bakarrik jakinarazi beharko da, eta jakinarazpena ingurumen-baimen integratuan ezarritakoaren arabera egingo da. Era berean, urtebete baino periodikotasun handiagoko kontrolak kontrola egiten duten urteari dagokion programaren barruan baino ez dituzte igorriko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik egin ez bada.

C.7.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak

eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, Ingurumena Zaintzeko Programak jardueraren adierazleak zehaztu beharko ditu, eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barnean hartu beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa gelditzean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak bigarren ataleko B.1.3 azpiatalean («Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzea bermatzeko baldintzak») ezarritakoari jarraituz kudeatu beharko dira, baina ez hondakin horiek ez dute zertan egon baimendutako hondakinen zerrendan jasota.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: Lurzorua Ez Kutsatzeari eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko Legea (otsailaren 4ko 1/2005), eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua (Kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa). Horrenbestez, Rugui SL sozietateak lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hasi beharko du, bi hilabeteko epea agortu baino lehen, jarduera behin betiko uzten duenetik hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Rugui SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren atalaren B.1.3 azpiatalean ezarritakoarekin bat etorriz.

D.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren (urriaren 18ko 815/2013) 13. artikuluan arautu bezala, Rugui SL enpresak, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketa edo emisio oro saihesteko.

D.4.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isuriak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden

baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Jarioak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (irazgaitzak), biltegiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), egon daitezkeen jarioei antzemateko neurriak edo gehiegi bete direneko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoru gaineko isurpenak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako isurpenak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira kudeatzeko edo hondakindegi baimendu batera eramateko. Biltegiratu egingo dira hondoan hustubiderik ez duten biltegi iragazgaitzetan. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

Baldin eta instalazioetan lokatzen tratamendua badago, horietatik jaregindako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez «by pass» bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «By pass» horrek ez aurreikusitako isurketa bat egongo balitz, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena Ingurumen Sailburuordetzara bidalita (atal honetako j) letran adierazitakoari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki behar da, non aldizka egindako mantentze-lanen eta antzemandako gorabeheren berri eman beharko baita.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabilioi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan gordeko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegiratze-instalazioek baldintza batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipo egokiak.

i) Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura bat edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isuriak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren betiere. Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean-unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Izandako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jarduerak, hala egokituz gero.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketa edo emisioren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Azkoitiko Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txostenten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gertakariaren iraupena.
- Ustekabeko isurketa gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne.
- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioztapena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kalte badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori eta; horrez gain, horren berri ere eman beharko die Euskal

Autonomia Erkidegoko administrazioko Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko atalean ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabehera edo arazoei aurre egiteko, jardueraren titularrak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari instalazioan aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, etengabeko prozesu bati dagozkionak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne hartuta.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta legeria horrek agintzen dituen betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

E) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, Ingurumena Zaintzeko Programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Rugui, SL enpresak, aurreko urtean atmosferara eta uretara isuritako emisioei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorriz.

Informazio hori IKS-eeM sistemaren erakundeetarako bertsioaren bidez egingo da (www.eper-euskadi.net webgunean eskuragarri); hau da, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistemaren bidez.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Ingurumen Adierazpena publikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez arautzen dira informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldez aurretik helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia betez eskatu beharko dute: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc, eta Organo honen baimena jaso ondoren baino ezingo dute gauzatu dena delako aldaketa.

815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikuluak aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako isurpenen erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena).

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integra-

tuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorriz, betiere.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko Legearen (otsailaren 27ko 3/1998) IB eranskinean, edo Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 21/2013) jasotako kasuen artean badago, baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio aldaketa horri.

Baldin eta aldaketan aurreikusten bada lurzoru berria okupatzea, eta aipatutako lurzorua jasota badago irailaren 30eko 165/2008 Dekretuak (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa) argitaratutako inbentarioaren barruan, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko Legean (otsailaren 4ko 1/2005) ezarritakoarekin bat etorriz.

H) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 30. artikuluari jarraituz, eta aipatutako uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 31. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Hirugarrena.– 16-I-01-000000000342 erregistro-kodea ematea Rugui SL enpresak ustiatutako instalazioari, zehazki Azkoitiko (Gipuzkoa) Basarte industrialdeko z.g.n; haren kokapena hau da: UTM 30N ETRS89, X: 557456 Y: 4781008 Z: 120 m.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, komeni denean mugako emisio-balioak berrikustea, edo beste batzuk ezartzea.

b) Isuriak nabarmen murritz daitezke gehiegizko kosturik izan gabe, erabil daitezkeen teknikarik onenetan egindako aldaketa handien ondorioz.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela-eta beharrezkoa denean beste teknika batzuk erabiltzea.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian araututakoaren arabera, ingurumen-baimen integratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela uste duenean, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isurketei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, berrikuste-prozesua gehienez ere hogei eguneko epean hasteko.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen duenean, edo uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 22.3 artikuluari jarraikiz ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa denean (ekainaren 11ko 5/2013 Legearen 16. artikuluak aldatu zuen artikulu hori).

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena Zaintzeko Programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzekoak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 25. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorriz egindako azterketa eginda, ondorioztatzen bada aldatu egin behar dela.

Ingurumen-baimen integratua berrikusteak ez du kalte-ordainerako eskubiderik emango, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bosgarrena.– Rugui, SL sozietateari eskaera egitea hilabeteko epean Ingurumen Sailburuordetza honetan hauek aurkez ditzan:

● Baimendutako kudeatzailea onartzeko agiria, honako hondakin hauek balorizatzeko: «herdoil-azala» eta «txirbila».

● Labearen mantentze-lanak egiten dituen enpresak hondakin erregogorren kudeaketa bere gain hartzen duela egiaztatzen duen agiria. Rugui, SLk eta enpresa mantentzaileak sinatuta egon behar da agiri hori. Horren ordez, baimendutako kudeatzaileak emandako onarpen-agiria aurkeztuko du Rugui SLk.

● «Txatarra» hondakinarekin lotuta, baimendutako kudeatzaileak emandako onarpen-agiria aurkeztu beharko du Rugui, SLk.

Horren ordez, txatarrak hondakinaren bizi-amaierako baldintzak betetzeko irizpideak betez gero, Rugui SLk txatar hori produktu gisa eman ahal izango du. Hartarako, Rugui SLk adostasun-adierazpen bat aurkeztu beharko dio organo honi. Aipatutako adierazpena Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluaren arabera egongo da idatzita; azken horren bidez zenbait irizpide ezartzen da txatar mota batzuk hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz.

Seigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako kasu hauetan:

● Ebazpen honen bosgarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu epe barruan, baldin eta interesdunak ez badu, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen.

● Rugui, SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Rugui, SL enpresari, Azkoitiko Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunean kontatzen hasita, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 12a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.